

V AKTA

Gaia: Idazkari-administrazioko laguntzaile lanpostu bat betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan lan egiteko. Elkarrizketa eta merituen balorazioaren behin-betiko emaitzak.

Aukeraketa-prozesua:

Aukera-prozesua Frantziako lan-legediaren arabera, honako lanpostu hau kontratatzea du helburu: idazkari-administrazioko laguntzaile bat Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan.

Prozesuak honako faseak ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa-prozesuan parte hartzeko derrigorrezko eskakizunak betetzen direlaaren berrikusketa
2. Ezagutza eta trebetasunak neurtzeko proba.
3. Elkarrizketa pertsonala
4. Merituen balorazioa.

Hirugarren eta laugarren fase honetan, elkarrizketa bat egin da, eta ondoren, elkarrizketa gainditu duten hautagaien meritoak baloratu dira. Elkarrizketako ariketa gainditzeko, 40 puntutik gutxienez 30 puntu lortu behar izan dira. Puntu horietatik behera, hautagaia bazterturik geldituko da eta ez da bere merituen baloratuko Deialdiaren oinarrien 6.2.1 eta 6.2.2 atalen arabera.

Elkarrizketak Ordezkaritzaren egoitzan egin dira 2026ko otsailaren 18an. Deitutako hautagai biak bertaratu dira Ordezkaritzara.

Behin behineko emaitzak jakinarazi eta argitaratu dira otsailaren 23an, eta erreklamazioak aurkezteko epe bat zabaldu egin da.

Ez da erreklamaziorik jaso, beraz behin-behineko emaitzak behin-betiko emaitzak bihurtzen dira eta hauek dira:

ERREGISTRO ZENBAKIA	PUNTUAZIOA
SAD-15012026-07	37,28
SAD-15012026-29	36,00



Proba baztertzailleak gainditu dituzten hautagaiek lortutako puntuazioak, proba guztiei dagozkienak, merituen balorazioa barne, hauek dira:

Erregistro zenbakia	Ezagutza eta trebetsunen proba	Elkarizketa	Merituen balorazioa	TOTALA
SAD-15012026-07	24	37,28	25	86,28
SAD-15012026-29	24	36,00	16	76,00

Guztizko eta behin-betiko emaitzetatik ondorioztatzen da, hautaketa prozesuko etapa guztiei dagozkien puntuak batu ondoren, puntu-kopuru handiena lortu duen hautagaia SAD-15012026-07 erregistro zenbakia duen hautagaia dela, Elixabete BILBAO ZABALA-ri dagokiona.

Parisen, 2026ko martxoaren 4an.



María Aránzazu López de Munain Zulueta
Euskadiren Frantziako Ordezkaría
Hautaketa Epaimahaiaren Mahaiburua

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 5koa, Euskadiren Frantziako ordezkariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita Euskadiren Frantziako Ordezkaritzako Idazkari-administrazioko laguntzaile lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesua.

Euskadiren Frantziako ordezkariak, 2025ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez, hautaketa-prozesurako deia egin zuen, hari erantsitako oinarrien arabera idazkari-administrazioko laguntzaile lanpostu bat betetzeko Euskadiren Frantziako Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko.

Oinarrietan ezarritako probak egin ondoren, hautapen prozesua bukatutik eta prozesu horretan lortutako eta argitaratutako emaitzen arabera:

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. 1. Hautapen prozesuan puntuaziorik onena lortu duen hautagaiari lanpostua esleitzea eta ordezkoen zerrenda ezartzea:

Egindako proben eta merezimenduen balorazioaren ondoriozko puntuazioaren arabera, puntuaziorik altuena lortu duten hautagaia eta, beraz, bete beharreko lanpostuaren esleipendun dena, hau da:

Elixabete BILBAO ZABALA

Ordezkoen zerrenda osatzen duten hautagaiak hauek dira:

Erregistro zenbakia	Puntuazioa
SAD-15012026-29	76



2. Behin-betiko hautatutako hautagaiak 10 egun naturaleko epea izango du, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita, jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkezteko, eskatutako eta alegatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Lan kontratua sinatzeko 31 egun naturaleko epea ezarri.

Azken xedapen bakarra. Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Parisen, 2026ko martxoaren 5ean



María Aránzazu López de Munain Zulueta
Euskadiren Frantziako Ordezkaría